

### 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Enpresaren funtsezko itunak gure artekoak izango dira, hau da, bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko dugu:

- Aitor**: Kontabilitatea eta diru gestioa emateko gaitasuna.
- Albena**: Diseinatzeko gaitasuna (jaketxea, menuak, ...).
- Maialen**: Antolakuntzarako gaitasuna.
- Oihane**: Jendea, langileei begiratuta, baloratzeko gaitasuna.
- Mirene**: Teknologiaren antolakuntzako gaitasuna (bitartekaria).

Negozia ondo funtziona dezan, bi aliantza sortuko ditugu; bat, Eroski enpresarekin eta bi, Basque Culinary Center enpresarekin. Bi enpresa horiekin aliantza eginez, produktuez hornituko ginateke eta merkeago aterako litzaiguke. Gainera haiek ere gure jabetxean deskontuak izango lituzkete. Horrez gain, arriskuak ere murriztuko ditugu, jakinda, produktuak bai ala bai iritsiko direla.

Eroski-ri eta Basque Culinary Center-i erosketak eginez, haien kalitate altuko produktuez hornituko ginateke eta hori gure jabetxean azpimarratu nahi dugun kalitate on bat izango litzateke.

Gainera, Samsung enpresarekin ere aliantza bat sortuko genuke, horrela, haien tabletak gure jabetxearen eskaerak egiteko erabiliko genituzke. Horrela, Samsung-ek guri haien tabletak eskainiko dizkigute edota erosiko dizkiegu eta haiek gure jabetxean, hainbat deskontu izango dituzte.

Konklusioz, hiru hornitzaile horiek guretzako oso garrantzitsuak izango lirateke, zeren, gure jabetxea, janaria prestatzeaz arduratuko da eta horretarako, produktuak hiru enpresa horiei erosiko dizkiegu, beraz, oso garrantzitsuak izango dira, jabetxea ondo funtziona dezan.